

# Azoka BERGARA tzen



Ekonomia Lokaleko bigarren saioa  
2014ko martxoaren 25a.



Azoka Bergaritzen ekimenaren barruan Azoka Biziberritzeko ildoaren lantaldeetako bat Ekonomia lokalarena da, Martxoak 11ean izan genuen lan taldearen lehen saioa, eta oraingoan bertan batutako ekarpenak sakondu eta ekintzak gauzatzeko akordiotara heldera bideratu zen lanketa.

Eguna: Martxoak 25, 18:30-19:30

Tokia: Udaletxeko Gobernu Batzordeko gelan

## ▪ Nortzuk hartu dute parte bileran?

Hauek izan dira aurkezpenean parte hartu dutenak:

<b>Izenak</b>	
Asier Latorre	Pili Arin
Maren Belastegi	Ariane Kareaga
Nagore Iraola	Andoni Larrañaga

## ▪ Saioan jasotako ekarpenak.

Aurreko saiotik jasotako ekarpenen arabera bi motatako ekintzak aurreikusten dira, eta hauek zehazteko eta gauzatzeko egin beharrekoen inguruan eztabaidatu da saio honetan.

### **Aste barruan egiteko ekintzak:**

- Edukia
  - Artisauak
  - Eskulanak erakusten dituztenak
  - Jarduera erakutsi eta salmenta bateratua
- Antolaketa
  - Asteazkena identifikatu da egunik aproposena moduan. Lore saltzailea etortzen den eguna da eta honek jendea erakartzen duenez, ekonomia lokaletik egin ahal daitezken ekintzak egun horretan egitea proposatu da.
  - Hasiera baten hamabostero edo hilean behin egitea aipatu da.

- Parte hartuko duten pertsonen artean dosifikatzea proposatu da. Hasieran behintzat binaka egitea aipatu da, honela aste gehiagotan ekintzak egiteko aukera egon dadin.
- Plangintza:
  - Identifikazioa zabaltzea erabaki da.
  - Kronograma egitea erabaki da, gutxienez hilabeteko behin egiteko.

### **Astebukaeratan egiteko ekintzak**

- Edukia
  - 2. Eskuko eta truke azokarekin hastea proposatu da. Honekin batera artisau, eskulan eta bestelakoak ere bertan txertatuz.
  - Gerora gaika monografikoak egitea aproposa ikusi da (liburuak, jostailuak, altzariak, etab)
  - Bilduma zaleak ere ekintzetan txertatzea aipatu da
- Antolaketa
  - Igande goiza identifikatu da egun aproposa bezala.
  - Larunbata ere izan daiteke, azokako merkataritza egun indartsuarekin batera eginez.
  - Hilabetean behin egitea proposatu da.
  - Hasiera baten, Pentekoste jaien hurrengo larunbatean hastea proposatu da, astebukaera horretan salmenta asko jaisten dela nabaritzen baita.
- Plangintza
  - Identifikazioa sakondu behar da
  - 2. Eskuko azoka hasteko pare bat pertsona prest egon daitezke.
  - Trukea garatzeko herritarrak eta bilduma zaleak identifikatu behar dira.
  - Herrira zabalkunde indartsua egin behar dela adostu da, interesatuengana iristeko eta haiek antolakuntzan inplikatzeko.
  - Ondoren kronograma egitea erabaki da, gutxienez hilabeteko behin egiteko.